

Martxotik irailera, Bakearen Museoa zabalik egongo da astelehenetan ere

Orain artekoa baino ordutegi zabalagoa eskainiko du Gernika-Lumoko museoak • Lau ibilbide egongo dira aukeran, lau hizkuntzatan • Bi Memoritour Euskadi ere prestatu dituzte

—OIHANA CABELLO

ELORRIAGA Gernika-Lumo

Martxotik irailera bitartean, Gernika-Lumoko Bakearen Museoa zabalik egongo da astelehen goizetan ere. Ordutegi zabalagoa eskaini gura dute, eta antolatzen dituzten jardueretan ere aukera eta eskaintza zabalagoa dakar museoak.

Ibilbide gidatuei dagokienez, lau desberdin egongo dira aukeran, museorako sarreragaz konbinatuta. Aire-contrako babeslekuak izango da bata; *Picasso eta Guernica* bigarrena; *Momentuak eta memoria* hirugarrena eta *Berreraikuntzari dagokion ibilbidea* laugarrena. Ibilbide guzti horiek, gainera, lau hizkuntzatan eskainiko dituzte: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez.

Ordutegian ere aldaketak izango dira taldeen kasuan, «eskaintza handituz»: 10:15ean, 11:30ean, 12:45ean, 15:00etan eta 16:15ean. Norbanakoentzat data



Bisitariak, Bakearen Museoa. B.M.

zehatzetan eskainiko dituzte aipatu ibilbideak: martxoaren 8an, maiatzaren 16an, Aste Santu eta Pazko Astearen, ekainaren 30etik abuztuaren 28ra eta urriaren 6tik 9ra, 13tik 15era eta urriaren 31n.

Ibilbide gidatuak bakarrik ez, eskaintza zabalagoa dauka Gernika-Lumoko Bakearen Museo-

ak, eta bi Memoritour Euskadi doan eskainiko ditu aurten: ekainaren 7an eta irailaren 27an. Tailer didaktikoak, hezkuntza material berria eta jarduera bereziak ere izango dira Bakearen Museoa. Gainera, domeketan sarrera doakoa da, eta martxoa eta urria bitartean ordutegia zabalagoa izango dela jakinarazi dute: 10:00etatik 19:00etara.

Elkarlanean, liburu berria

Berritasunen artean, gainera, liburu berri bat ere aurkeztu du: *Artea, memoria eta espazio publikoa*.

Gernikako Bakearen Museoa Granollersekin (argitaratzailea), Bartzelonagaz eta Nafarroagaz elkarlanean egindako liburua da, eta 239 orrialde ditu. Hain zuzen, liburu horrek *Artea, memoria eta espazio publikoa* mintegi ibiltariaren esparruan Gernika-Lumon, Granollersean, Bartzelonan eta Sartagudan egindako jarduerak biltzen ditu.

Biktimen dolu prozesua lantzen duen proiektioa emango dute gaur

'S(u/a)minetik bakera' obra eszenikoa aurkeztuko dute Lizeo Antzokian • Iñaki Peñak idatzi eta zuzendutako proiektuak terrorismoaren biktimen dolua lantzen du

—O.C.E. Gernika-Lumo

Bi alaba, bi dolu. Aita galdu osteko dolu eta mina biltzen duen ikus-entzunezkoa da *S(u/a)minetik bakera*. Patxi Lurrak (Iñaki Peña) idatzi eta zuzendu duen ikus-entzunezkoa obra eszenikoa da, eta terrorismoaren biktimen dolu prozesua erakutsi gura du. Lizeo antzokian izango da emanaldia gaur, 19:00etatik aurrera.

Lan horretan, terrorismoaren biktimen bi lekukotza bildu ditu zuzendariak: Olatz Etxaberena da bata (Batallon Vasco-Españolek hildako Iñaki Etxaberen alaba). Sandra Carrascoren lekukotza da bestea (ETAk hildako Isaias Carrascoren alaba).

Arrasatearrak dira biak, eta bien sentimenduak azaltzeagaz batera, gorrotoaren sentimendutik bakera bitarteko bidea ze-

lan garatu duten erakusten du ikus-entzunezkoak.

Proiektuak irudiak, musika elektronikoa eta testuen irakurketa uztartzen ditu. Mudohrena da musika (Aitor Monje) eta Arteman Komunikazioak egin du ekoizpen lana. Gaurko aurkezpenean, Juan Mari Jauregiren alaba Maria Jauregik eta Jon Maia bertsolariak irakurriko dituzte testuak.

2013tik memoria jorratuz

Gernika Gogoratuzek memoria eta elkarbizitzari buruzko gaiak jorratzen ditu 2013az geroztik, eta gaurko obra eszenikoa ere gai horiek lantzen dituelako bultzatu dute: «Indarkeriak euskal gizartean izan duen eragina aztertze eta ekarritako dolu prozesuaz berba egiteko aukera ematen du».

Udala Zarragoitxi hobetzeko lanak egiten ari da

—OLAIA ZABALONDO Bermeo
Zarragoitxiko iriste erraztasuna hobetzeko asmoz, hainbat lan ari da egiten Bermeoko Udala. Lanek Askatasun Bidea kaletik Zarragoitxira igotzeko bidearen egoera hobetzea dute helburu, auzokideei etxera iristeko edo herrira jaisteko erraztasunak eman asmoz. Horiek egiteko, 242.000 euroko aurrekontua aurreikusi du udalak.

Bidearen arazo nagusia malda da, eta bide ertzetik doan eskailerak arazo bera daukela diote udal arduradunek. Eskailerak, gainera, zaharkituta daude, eta berritu egingo dituzte. Orain, halaber, lekuz aldatuko dituztela jakinarazi dute; berriek bihurgunea ekidin eta beheko

aldetik zuzenean igoko dira. Bidearen beste aldean, berriz, espaloi berria egingo dute.

Beste alde batetik, goiko aldean ere egingo dute konponketarik: etxebizitzaren alboan dauden eskailerak eta espaloia ere berrituko dituztela jakinarazi dute.

Bizi kalitatea hobetu

Hobekuntza lan horiei esker, auzotarren bizi kalitatea hobetuko dela diote, eta era berean, larrialdietarako ibilgailuen iriste erraztasuna ere hobetuko da.

Bermeoko Udalak agintaldi hasieran ezarri zuen helburuetako bat da iriste erraztasuna hobetzea, eta azaldu dutenez, «pikkanaka» doaz hobetze lan horiek egiten.



Zarragoitxin iriste erraztasuna hobetzeko lanak hasita daude dagoeneko. BERMEOKO UDALA